

# AEK Txotx! afariak etzi 1.500 lagun biltzea espero dute antolatzaileek


Haritz RODRIGUEZ | ASTIGARRAGA

Atzo aurkeztu zuten larunbat honetan Astigarragan ospatuko den AEK Txotx! jaialdia. Aurkezpenean Joxe Leon Otaño -Gipuzkoako AEK-, Belen Hernandez -Astigarragako Udaleko zinegotzia-, Xabier Ugalde -Korrikako arduraduna-, Joxe Ramon Rezola sagardogilea eta Ixiar Erasun, AEK Txotx!en antolatzailea izan ziren.

Haien esanetan, «ekitaldia euskaraz ikasten ari diren, eta jakin badakitenen topaleku izango da beste behin ere. Sagardoa dastatu eta afari ederraz gozatze-ko aukera izateaz gain, hitzordu ezin hobea izango da euskaraz solasean aritzeko eta beste ikasle eta irakasle batzuk ezagutzeko. Aurreko sagardo egunek izan duten arrakastari erreparatuta, aurten 1.500 lagunetik gora espero ditugu afaltzeko, eta askoz ere gehiago egun osoan izango diren ekitaldietan».

Egitarauak Astigarragako Joxe Migel Barandiaran enparantza (beheko plaza) izango du gune nagusi. Nahiz goizez, nahiz arratsaldez eskulangintza azoka izango da ikusgai plazan eraikiko duten karpapean, Gabilta elkartearen eskutik. Kanean trikitalariak ere izango dira giroa alaitzen, egun osoan. 17.30ean bakailao lehiaketa egingo da eta tresna eta osagai guztiak antolatzaileek jarriko dituzte partaideren eskura. Azken hauek prestatu besterik ez dute egin beharko.

Irabazleak 10.000 pezeta, trofeo eta txapela jasoko ditu sari gisa. Bigarrenak 5.000 pezeta eta oroigarria, eta hirugarrenak oroigarria soilik. 18.00etan Korrika Trama hasiko da, Jon Maia, Jexux Mari Irazu eta Aritz Lopategi bertsolariekin. Jarraian, 20.00 aldera, sagardotegira abiatu eta afaria hasiko da eta 0.00etan Laiotz taldeak dantzaldia eskainiko du. Txartelak euskaltegietan daude salgai.



Andoni CANELLADA

Antolatzaileak txotx egiten jaialdiaren aurkezpenean.